


# AUDITORIA SOZIALA

- 2025 -



Sasoian gaude!



**REAS**  
**EUSKADI**  
ekonomia alternatibo  
eta solidarioa



**auditoria soziala**  
**REAS EUSKADI**

**(2024ko datuak)**

**2025eko urria**

**REAS Euskadi**

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Harrobia Plaza 4, 2º. 48003 Bilbo

Tel.: 94 416 05 66

[reaseuskadi@reaseuskadi.eus](mailto:reaseuskadi@reaseuskadi.eus)

[www.reaseuskadi.eus](http://www.reaseuskadi.eus)

@REASEuskadi

**Koordinazioa eta idazketa:** Amaia Naveda Sáenz de Ugarte

**Diseinua eta maketazioa:** Hari - Contando contigo

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Agiri hau Creative Commons en lizentziapean dago. Horri esker, badago lan hau kopiatzerik, banatzerik eta jendaurrean jakinarazterik, betiere, autoretza aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Lana aldatu edo eraldatzen bada edo lan eratorria sortzen bada, honen antzeko lizentziapean baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>

**Finantzatzaileak:**



-0-

# Aurkibidea

1

**Sarrera**  
04

2

**REAS Euskadiko  
unibertsoa**  
05

3

**Auditoria  
Sozialeko erakunde  
parte-hartzaileak**  
10

4

**Aberastasunaren  
bidezko  
banaketaren  
printzipioa**  
14

5

**Berdintasunaren  
printzipioa**  
17

6

**Jasangarritasun  
ekologikoaren  
printzipioa**  
28

7

**Lankidetzaren  
eta ingurunearekiko  
konpromisoaren  
printzipioa**  
33

8

**Lan duinaren  
printzipioa**  
39

9

**Langileen  
eta boluntarioen  
printzipioa**  
43

10

**Ondorioak eta  
2026erako  
erronkak**  
48

# -1- Sarrera



2025ean, berriro erakutsiko dugu REAS Euskadiren bihotz kolektiboa **Auditoria Sozialaren (AS)** prozesuaren bidez, gardentasuna bermatzeko eta kontuen berri emateko orduan Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) funtsezko tresna dela kontuan hartuta. Aurten, 124 erakunde bazkide eta laguntzailek prozesuan parte hartu dutenez, argi eta garbi dago gero eta gehiago garela eta gero eta osasuntsuago gaudela. Beraz, aurten izan dugun leloaren espirituarekin bat gatoz: mens sana in corpore sano.

Auditoria Sozialaren prozesua maiatzetan hasten da datuak plataforma bateratuan biltzen direnean, eta udazkenean amaitzen da **"2025eko Auditoria Soziala"** berme-zigilua lortu eta banakako zein taldekako emaitzak argitaratzen direnean.

ASk begirada integrala eskaintzen du erakundeek ESSren Gutuneko sei printzipioekin duten konpromisoaren inguruan: **berdintasuna, lan duina, jasangarritasun ekologikoa, lankidetzak, aberastasunaren bidezko banaketa eta ingurunearekiko konpromisoa**. Abian jarri denetik, tresna bizi moduan sendotu da, Estatu osoko 600etik gora erakundek eta Euskadiko 124k darabilte eta modu kolektiboan erkatzeko, ikasteko eta hobetzeko aukera ematen du **"Bihotza erakutsi"** plataformari esker.

Datu kuantitatiboak ez ezik, Auditoria Sozialean langileei eta boluntarioei bi urtean behin egindako inkestak ere kontuan hartzen direnez, erakunde bakoitzak ESSren printzipioen inguruan daukan argazkia aberasten dute. Horiek horrela, Auditoria Sozialak oraina ebaluatzen du, baina, horrez gain, balio horiek erakundeen estrategian zein egunez egunekoan apurka-apurka txertatzeko prozesua ere sustatzen du, ondorio onak sortzen dituela kontuan hartuta; esate baterako:

- Erakundeen nortasuna eta xede soziala indartzea.
- Barruko nahiz kanpoko komunikazioa hobetzea eta, horrela, gardentasunaren alde egitea.
- Erakundeko kudeaketa eta bizitza etengabe hobetzen laguntzea.
- Pertsonen partaidetza sustatzea.


Txosten honetan, REAS Euskadiko erakunde kideen datu erantsiak aurkezten dira, gero eta zabalagoa, dibertsoagoa eta osasungarriagoa den sarearen bilakaeraren erakusgarri. Gainera, gero eta mikroenpresa eta sektore berri gehiago daudenez, erronkak sortu dira interpretatzeko orduan, baina, era berean, ageri-agerikoa da ESS **erresilientea** dela eta **egokitzeko gaitasuna** duela etengabe aldatzen ari den ingurune ekonomiko eta sozialean.

*REAS Euskadik lotutako 36.000tik gora laguneko ekosistema sendotu du, oreka ekonomikoa dauka, emakumeen agerpena handi-handia da bertan eta gero eta konpromiso handiagoa dauka jasangarritasunarekin.*



-2-

# REAS Euskadiko unibertsoa





**128 erakunde kide** (%79 Bizkaian, %12 Gipuzkoan eta %9 Araban). Oraindik ere, **lurralde-berdintasuna** da erronka, gehienak Bizkaian kokatuta daude-eta.

**Kooperatibak (%39)** eta **elkarteak (%32)** nagusi direnez, ESSren dibertsitate juridikoaren adierazgarri dira.

**Sektore nagusiak:** aholkularitza eta ikerketa (%16), gizarte-jarduketa (%12), komunikazioa eta irudia (%9) eta lankidetzak (%9).

## Erakunde kideak

128



## Jarduera-sektoreak

|                                  |    |       |  |
|----------------------------------|----|-------|--|
| Aholkularitza eta ikerketa       | 21 | %16,4 |  |
| Gizarte-jarduketa                | 16 | %12,5 |  |
| Lankidetzak eta sentsibilizazioa | 12 | %9,4  |  |
| Komunikazioa eta irudia          | 11 | %8,6  |  |
| Aisialdia eta kultura            | 8  | %6,3  |  |
| Elikadura eta nekazaritza        | 7  | %5,5  |  |
| Energia eta ingurumena           | 7  | %5,5  |  |
| Prestakuntza                     | 7  | %5,5  |  |
| Etxebizitza eta hirigintza       | 7  | %5,5  |  |
| Merkataritza                     | 6  | %4,7  |  |
| Osasuna eta zainketak            | 5  | %3,9  |  |
| Finantzak                        | 4  | %3,1  |  |
| Industria eta eraikuntza         | 4  | %3,1  |  |
| Garbiketa eta mantentze-lana     | 4  | %3,1  |  |
| Informatika eta teknologia       | 4  | %3,1  |  |
| Ostalaritza                      | 3  | %2,3  |  |
| Telekomunikazioak                | 2  | %1,6  |  |




128 %100

## REAS Euskadiko unibertsoa




*Euskal ESSk zerbitzu profesionalak uztartzen ditu gizarte-jarduketarako proiektuekin, eta kulturaren zein zainketen arloko sektoreek gero eta zeresan handiagoa dute bertan. Mikroenpresak eta ekimen berriak ere badaudenez, bere dinamismoaren eta erresilientziaren adierazgarri dira.*



### Lurraldea

Bizkaia **101** | %79  
 Gipuzkoa **15** | %12  
 Araba **12** | %9






## Erakunde laguntzaileak

17



### Lurraldea

Bizkaia **10** | %59  
Gipuzkoa **5** | %29  
Araba **2** | %12



### Forma juridikoa

- Elkarte **7** | %41
- SL **4** | %24
- Kooperatiba **3** | %18
- Autonomia **1** | %6
- Fundazioa **1** | %6
- Erakunde publikoa **1** | %6

## Jarduera-sektoreak

|                                   |           |       |             |
|-----------------------------------|-----------|-------|-------------|
| Gizarte-jarduketa                 | <b>4</b>  | %23,5 | <div></div> |
| Komunikazioa eta irudia           | <b>3</b>  | %17,6 | <div></div> |
| Lankidetzeta eta sentsibilizazioa | <b>2</b>  | %11,8 | <div></div> |
| Etxebizitza eta hirigintza        | <b>2</b>  | %11,8 | <div></div> |
| Aholkularitza eta ikerketa        | <b>1</b>  | %5,9  | <div></div> |
| Elikadura eta nekazaritza         | <b>1</b>  | %5,9  | <div></div> |
| Merkataritza                      | <b>1</b>  | %5,9  | <div></div> |
| Energia eta ingurumena            | <b>1</b>  | %5,9  | <div></div> |
| Prestakuntza                      | <b>1</b>  | %5,9  | <div></div> |
| Aisialdia eta kultura             | <b>1</b>  | %5,9  | <div></div> |
|                                   | <b>17</b> | %100  |             |

# REAS Euskadiko unibertsoa



**36.956 lagun** guztira (laguntzaileak barne).

Langileen %70 emakumeak dira.

Boluntarioen %62 emakumeak dira.

Lotutako lagun guztien %51 emakumeak dira.


*Emakumeen lana eta boluntariora Euskal ESSren oinarri nagusia dira.*

## REAS Euskadin saretutakoak

## Laguntzaileak kontuan hartzen baditugu

**36.069**

**36.956**



Emakumeak 18.259 (%51)  
Gizonak 17.705  
Ez-binarioak 105

Emakumeak 18.787 (%51)  
Gizonak 18.064  
Ez-binarioak 105

● **Langileak:**  
**4.078**  
Emakumeak: 2.860  
(%70)  
Gizonak: 1.215  
Ez-binarioak: 3

○ **Boluntarioak:**  
**4.413**  
Emakumeak: 2.723  
(%62)  
Gizonak: 1.685  
Ez-binarioak: 5

● **Kideak (langileak ez direnak):**  
**27.578**  
Emakumeak: 12.676  
(%46)  
Gizonak: 14.805  
Ez-binarioak: 97

● **Langileak:**  
**4.400**  
Emakumeak: 3.066  
(%70)  
Gizonak: 1.331  
Ez-binarioak: 3

○ **Boluntarioak:**  
**4.717**  
Emakumeak: 2.904  
(%62)  
Gizonak: 1.808  
Ez-binarioak: 5

● **Kideak (langileak ez direnak):**  
**27.839**  
Emakumeak: 12.817  
(%46)  
Gizonak: 14.925  
Ez-binarioak: 97

## Diru-sarrerak guztira

207 milioi €

Fakturazioa **129 milioi €** | %62

Dirulaguntzak **66 milioi €** | %32

Beste diru-sarrera batzuk **12 milioi €** | %6

## Diru-sarrerak guztira

222 milioi €


Fakturazioa **133 milioi €** | %60

Dirulaguntzak **75 milioi €** | %34

Beste diru-sarrera batzuk **14 milioi €** | %6

-3-

# Auditoria Sozialeko erakunde parte-hartzaileak





# Auditoria Sozialeko erakunde parte-hartzaileak

## 2025

1. Abako
2. Abarka ONGD
3. Agiantza
4. Agintzari
5. Aire E-Learning
6. Al Borde Films
9. Ametsak Sortzen
8. Ametxe
19. Ankurkulu
10. Aradia
11. Ariwake
12. Astindu
13. Berezi99
14. Berjantzi
15. Berziklatu
16. Bidebarri
17. Bidegintza
18. Bikonet
19. Bilbao Formarte
20. Biozaki
21. Bitamine
22. Bizilur
23. Bizitzen
24. Boronabila
25. Butroi Bizirik
26. Calala Fondo de Mujeres
27. Caritas Bizkaia
28. ColaBoraBora
29. CIFP Txurdinaga LHII
30. Colectiva XXK
31. Criptomart
32. Economistas sin Fronteras
33. Egoaizia
34. EHNE Bizkaia
35. Ekhilur
36. Elkarbanatuz
37. Elkarbidean
38. Elkartenet
39. Emaús Fundación Social
40. Equipare
41. Erain
42. Erreka Multimedia
43. Errotik Kooperatiba Feminista
44. Esther Canarias
45. Estudio 14 Bilbao
46. Estudio Matrelle
47. Etikalia
48. Eureka
49. Finantza Etikoak
50. Goiener
51. Goilurra
52. Gizakia
53. Goiztiri
54. Grupo SSI
55. GuHaziakGara
56. Hari - Contando contigo
57. Haziz Hazi
58. Hegoa
59. Hiritik At
60. Hobest
61. Ikatzbizi
62. Inbiku
63. ISF-MGI
64. Iturritek
65. Izarkom
66. Izarza
67. Izangai
68. Kidekoop
69. Kidenda
70. Koalak Studios
71. Konekta comunicación
72. Koopera
73. Koopera Serv. Ambientales
74. Koopera Zaintzalan
75. La Ilusa
76. La Jabonería de la Almendra
77. La Tercera Pata
78. La tienda Comprometida
79. Labox
80. Laiatzen
81. Lapiko Catering
82. Lagun Artean
83. Louise Michel Liburuak
84. Lurgaia
85. M3 Arteko
86. María Larruzea -Pedagogía Alquímica
87. Martin Etxea
88. Medicusmundi Araba
89. Migrantoria
90. Momentu
91. Mugarik Gabe
92. Oikocredit Euskadi
93. Ojobuey
94. Ortutik Ahora
95. Pabellón 6
96. Pachamama Amalurra
97. Peñascal
98. Perpetum Mobile
99. Pikara Magazine
100. RAÍZ. Equipo de Apoyo Social Comunitario
101. REAS Euskadi
102. Reciclanet
103. RewindTheCity & Design
104. Sartu Gaztaroa
105. Sartu Erroak
106. Sartu Araba
107. Sartu Zabaltzen
108. Sepra
109. Setem Hego Haizea
110. SH Peñascal
111. Sokaire
112. Sustraiak HD
113. Sortarazi
114. Teraí Cosmética
115. Tinko Garbiketak
116. Umerri Eskola Aktiboa
117. Urbanbat
118. Vegaizan
119. Wikitoki
120. Work-Lan Bizkaia
121. Yedra Elkartea
122. Zain Infancia
123. Zubietxe / Libu
124. Zurtek





# Auditoria Sozialeko erakunde parte-hartzaileak

## ESSko 124 erakunde

351 lantoki

### Jarduera-sektoreak




### Lurraldea

Bizkaia **98** | %79  
Gipuzkoa **15** | %12  
Araba **11** | %9

### Forma juridikoa

- Kooperatiba **47** | %37,9
- Elkartea **43** | %34,7
- SL **21** | %16,9
- Fundazioa **6** | %4,8
- Autonomoa **4** | %3,2
- SLL **1** | %0,8
- Erakunde publikoa **1** | %0,8
- Sindikatu **1** | %0,8








# Auditoria Sozialeko erakunde parte-hartzaileak




## Auditoria Sozialeko zenbaki nagusien bilakaera



-4-

# Aberastasunaren bidezko banaketaren printzipioa






## Aberastasunaren bidezko banaketaren printzipioa

**Diru-sarrerak guztira** 217 M€ 2024an (2020an baino %44 gehiago).


**Gastuak guztira:** 214 M€. Haietatik, %54 langile-gastuak dira  
→ ESS bizi-bizia da enpleguari dagokionez.

Erakundeek %79k mozkinak izan zituzten; eta %25ek, galerak.  
Soberakinen %91 erreserbetarako erabili zirenez, jasangarritasun kolektiboa sendotu da.

*ESSko erakundeek jasangarritasun ekonomikoa eta xede soziala uztartzen dituzte: ia-ia guztia erreserbetan, prestakuntzetan eta kausa sozialetan inbertitzen dute berriro.*



## Emaitza ekonomikoa



## Aberastasunaren bidezko banaketaren printzipioa




### Mozkinen banaketa

Emaitza ekonomiko positiboa eduki duten erakundeek honelaxe banatu dituzte euren soberakinak:

|                                                      | Erakundeen % | Banatutako €       | %   |
|------------------------------------------------------|--------------|--------------------|-----|
| Erakunde sustatzaileen artean banatutako soberakinak | %0           | 0 €                | %0  |
| Galerak konpentsatzeko erabilitako soberakinak       | %22          | 375.461 €          | %9  |
| Erreserbetarako erabilitako soberakinak              | %82          | 3.959.178 €        | %91 |
|                                                      |              | <b>4.334.638 €</b> |     |


Erreserbak zuzkitu dituzten 72 erakundeek honako helburu hauetarako egin dituzte:

- Derrigorrezko/borondatezko erreserbak **68** | %94
- Barruko prestakuntza **18** | %25
- Kausa sozialak **11** | %15
- Soldaten gehikuntza **4** | %6
- ESSren inbertsio finantzarioak **2** | %3



-5-

# Berdintasunaren printzipioa



## Berdintasunaren printzipioa



**Erantzukizuneko lanpostuak** emakumeek lanpostu horien %71 betetzen dituzte.

**Gobernu-organoak:** bertako kideen %58 emakumeak dira.


**Soldata-arrakala:** -%0,5 (emakumeek gehixeago kobratzen dute).

*Euskal ESSk berdintasunaren arloko batezbesteko estatalak gainditzen ditu: emakumeak liderrak dira, eta soldata-arrakala desagertu egin da ia-ia.*




## Partaidetza

### Erantzukizuneko lanpostuak:



Erantzukizuneko lanpostuen %71 emakumeek betetzen dituzte, eta, erantzukizuneko lanpostuetako langileen artean, emakumeak (%12) beste gizon (%12) daude.


### Lanpostu politikoak:



# Berdintasunaren printzipioa



## Erabaki estrategikoetan parte hartzen dutenak:



**2023**


● Emakumeak: 1.016 | %66 | \*%21  
 ● Gizonak: 511 | %33 | \*%25  
 ○ Ez-binarioak: 2 | %0 | \*%22

**2024**

● Emakumeak: 1.025 | %66 | \*%17  
 ● Gizonak: 531 | %34 | \*%17  
 ○ Ez-binarioak: 11 | %0 | \*%13

\*Langileak eta boluntario guztiei buruzko erabakiak hartzen dituzte

## Antolakuntzako erabakietan parte hartzen dutenak:



**2023**


● Emakumeak: 878 | %68 | \*%18  
 ● Gizonak: 403 | %31 | \*%19  
 ○ Ez-binarioak: 2 | %0 | \*%22

**2024**

● Emakumeak: 845 | %68 | \*%14  
 ● Gizonak: 387 | %31 | \*%13  
 ○ Ez-binarioak: 2 | %1 | \*%25

\*Langileak eta boluntario guztiei buruzko erabakiak hartzen dituzte

## Erabaki estrategikoetan parte hartzen duten langileak:



**2023**


● Emakumeak: 477 | %65 | \*%19  
 ● Gizonak: 251 | %34 | \*%23  
 ○ Ez-binarioak: 11 | %0 | \*%25

**2024**

● Emakumeak: 525 | %66 | \*%17  
 ● Gizonak: 276 | %34 | \*%21  
 ○ Ez-binarioak: 0 | %0 | \*%0

\*Langileak eta boluntario guztiei buruzko erabakiak hartzen dituzte

## Antolakuntzako erabakietan parte hartzen duten langileak:



**2023**

● Emakumeak: 480 | %71 | \*%19  
 ● Gizonak: 194 | %29 | \*%18  
 ○ Ez-binarioak: 2 | %0 | \*%50

**2024**

● Emakumeak: 496 | %70 | \*%16  
 ● Gizonak: 208 | %29 | \*%16  
 ○ Ez-binarioak: 11 | %1 | \*%33


\*Langileak eta boluntario guztiei buruzko erabakiak hartzen dituzte

## Berdintasunaren printzipioa




Emakume langileen %17k eta gizon langileen %21ek erakundeko erabaki estrategikoetan parte hartzen dute. Datu hori %16ra jaisten da kasu bietan, eragiketekin / antolakuntzarekin zerikusi handiagoa duten erabakiak hizpide ditugunean.

**Erakundeetan bertan lidergoa kontuan hartzen duten eta behar besteko neurriak ezartzen dituzten erakundeak, erabakitzean erabakigarriak izan ez daitezten:**



## Soldata-berdintasuna

### Soldata-arrakala:



- Emakumeen urteko batez besteko soldata
- Gizonen urteko batez besteko soldata
- Gizonen eta emakumeen arteko arrakala


Ekonomia solidarioko emakumeek gizonen baino %0,5 gehiago kobratu dute 2024an.



## -5- Berdintasunaren printzipioa




### Batez besteko soldata-proportzioa:



Erakundeen soldata-proportzioaren batezbestekoa 1,68koa denez, gehien kobratzen duenak gutxien kobratzen duenak baino 1,68 aldiz gehiago kobratzen du.

### Haztatutako soldata-proportzioa:



Soldata-proportzioa erakunde bakoitzean dauden langileen kopuruaren arabera haztatzen badugu, datu hori 1,76tik 2,74ra igotzen da, enpresa handietan soldata-desberdintasuna handiagoa delako langileen artean.

# Berdintasunaren printzipioa





## Gardentasuna

Langileei eta kideei jendaurrean  
soldaten berri ematen dieten  
erakundeak

2022

2023

2024



Aldian-aldian informazio ekonomikoa  
partekatzeko eremua duten  
erakundeak


Honako honexeri buruzko barruko\* informazioa eskuragarri duten erakundeak:




Balantze  
ekonomikoa /  
Aurrekontua



Komunikazio Plana



Urteko Lan Plana /  
Memoria




Arauak eta barruko  
prozedurak




Kode Etikoa /  
Estatutuak



Batzarreko aktak



Batzarra ez beste  
erabaki-gune  
batzuetako aktak




Aurreko bat bera  
ere ez

\* langile, kide eta boluntarioentzat.


## Berdintasunaren printzipioa



### Webgunean honako honexeri buruzko informazio publikoa duten erakundeak:




### Honako hauexei Auditoria Sozialeko datuen berri ematen dieten erakundeak:



## Hizkuntza ez-sexista

### Hizkera inklusiboa darabilte:



## Berdintasunaren printzipioa



Erakundeen %78 Berdintasunerako Plana eta Eraso Sexualen Aurkako Protokoloa dituzte.

Langileen %1 baino ez dira desgaituak, erakundeen %83k irisgarritasunerako neurriak ezartzen badituzte ere.

Dibertsitateari dagokionez, %50ek kontratazio inklusiborako irizpideak ezartzen dituzte gaur egun.

Genero-berdintasuna zutabe sendoa da, eta, oraindik ere, lehenetsunez hobetu beharreko arloa da desgaitasuna.



## Berdintasunerako Plana eta Eraso Sexualaren Aurkako Protokoloa






Berdintasunerako indarreko Plana eta horren jarraipenerako baliabideak dauzkaten erakundeak




2022

2023




2024



Sexu, genero-nortasun edo lehenetspen sexualagatiko eraso sexuala prebenitzeko eta aurre egiteko protokoloa duten erakundeak



Erakundeetan bertan ikuspegi feminista ezartzeko eta horri eusteko asteko ordu-arduraldipean langile kontratatua edo boluntarioa duten erakundeak



# Berdintasunaren printzipioa



## Dibertsitatea

### Langileen batez besteko adina:

|                                                                                                | 2021    | 2022    | 2023    | 2024    |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|---------|---------|---------|
| Emakumeak     | 42 urte | 40 urte | 42 urte | 43 urte |
| Gizonak       | 41 urte | 42 urte | 42 urte | 43 urte |
| Ez-binarioak  | 25 urte | 27 urte | 43 urte | 31 urte |


### Erakundean bertan dibertsitatea sustatzeko ekintza egokiak garatzen dituzten erakundeak:

|                                                                                                                                                                                                                    | 2023                                                                                           | 2024                                                                                            |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Barruko prestakuntza                                                                                                            |  55<br>%47 |  59<br>%50 |
| Erakundean bertan dibertsitateari buruz hausnartzeko abian jarritako guneak                                                     |  50<br>%43 |  57<br>%58 |
| Dibertsitateen inguruko lan-batzordea, antzemandako premien arabera egokitzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri ahal izateko  |  14<br>%12 |  16<br>%13 |
| Erakundean bertan dibertsitateari buruz egindako hausnarketak plangintzan/helburuetan kontuan hartzea                           |  33<br>%28 |  45<br>%38 |
| Lehentasunezkoa da taldeetan jatorri, adin... desberdineko profilak egotea                                                      |  55<br>%47 |  59<br>%50 |
| Langileak "Curriculum itsuaren" bidez hautatzea                                                                                 |  11<br>%9  |  11<br>%9  |
| Ez da ekintza egokirik ezartzen, erakundean bertan dibertsitatea sustatzeko asmoz                                               |  24<br>%21 |  24<br>%20 |

## Berdintasunaren printzipioa



### Erakundetik kanpo dibertsitatea sustatzeko ekintza egokiak garatzen dituzten erakundeak:




## Desgaitasuna

### Langile desgaituen kopurua:

|              | 2022              | 2023              | 2024            |
|--------------|-------------------|-------------------|-----------------|
| Guztira      | <b>43</b><br>%1,3 | <b>78</b><br>%2,2 | <b>55</b><br>%1 |
| Emakumeak    | <b>29</b><br>%1,2 | <b>44</b><br>%1,8 | <b>30</b><br>%1 |
| Gizonak      | <b>14</b><br>%1,4 | <b>34</b><br>%3,1 | <b>23</b><br>%2 |
| Ez-binarioak | <b>0</b><br>%0    | <b>0</b><br>%0    | <b>2</b><br>%67 |

### Desgaituak kontratatuta dituzten erakundeak:



# Berdintasunaren printzipioa



## Irisgarritasuna




**Desgaitasuna kontuan hartu eta pertsona guztien inklusioa sustatzen duten erakundeak:**

2022




2023

2024



Lekua bera atontzean, era bateko eta besteko desgaitasunak dituztenen premiak hartu dira kontuan






Prestakuntzetan edota tailerretan, irisgarritasunaren arloan lehendik dauden neurrien berri ematen dute, zer neurri gehiago ezarri behar diren galdetzen dute eta neurri horiek ezartzen saiatzen dira






Langileek behar besteko prestakuntza edota baliabideak dituzte, desgaituekin lan egiteko




Webgunea egiteko edota ikus-entzunezko materiala sortzeko orduan, irisgarritasuna hartzen da kontuan



Beste neurri batzuk ezartzen dira




Ez da desgaitasuna kontuan hartzen duen berariazko neurririk ezartzen



"Erakundeek %83k desgaituak hartzen dituzte kontuan".

-6-

# Jasangarritasun ekologikoaren printzipioa







## Jasangarritasun ekologikoaren printzipioa


Erakundeen %92k tokian tokiko produktuak/zerbitzuak kontsumitzen dituzte; eta %87k, produktu ekologikoak.

%75ek aztarna murrizteko neurriak hartzen dituzte, baina %4k baino ez dituzte CO2 isuriak neurtzen.

Euskal ESSk aurrera egin du kontsumo arduratsuan, baina oraindik ez da eragin klimatikoa neurtu.



### Ingurumena babesteko irizpide orokorrak







# Jasangarritasun ekologikoaren printzipioa




## Kontsumoa




Energiaren erabilera murrizteko barruko politika daukaten erakundeak



Ekintzak berrikusten dituzten erakundeak, beharrezkoa ez den kontsumoa ekiditeko



Tokian tokiko edo hurbileko edo ingurumenaren gaineko eragina murrizteko moduko produktuak zein zerbitzuak erosten dituzten erakundeak



Produktu ekologikoak erosten dituzten erakundeak







# Jasangarritasun ekologikoaren printzipioa




## Lantokiko bertako kontsumoa



Uraren kontsumoa aurrezteko eta eraginkortasuna sustatzeko jarduketak garatzen dituzten erakundeak




Premia energetikoak optimizatzeko eta murrizteko inbertsioak egiten dituzten erakundeak



Elektrizitatea euren energia elektriko guztia iturri berriztagarrien bidez sortzen duten enpresei kontratatzen dieten erakundeak

\* **Elektrizitatearen zati bat**



Aldizka eta gehienbat paper birziklatua edota baso-ustiapen jasangarriari buruzko ziurtagiridun papera darabilten erakundeak

\* **Ez dute inolako paperik erabiltzen**






## Jasangarritasun ekologikoaren printzipioa




### Hondakinen prebentzioa, tratamendua eta bilketa




### Mugikortasuna

Garraioarekin lotutako alternatibaren bat eskaintzen edo sustatzen duten erakundeak




Lanaldian bertan ingurumenari begira jasangarria den garraioa eskaintzen duten erakundeak



-7-

# Lankidetzaren eta ingurunearekiko konpromisoaren printzipioa





## Lankidetzaren eta ingurunearekiko konpromisoaren printzipioa

%96 ESSko beste erakunde batzuekin lan egiten dute (proiektuak, jakintza, kudeaketa).

Erosketen %7 Merkatu Sozialean egiten direnez, urterik urte hazten ari dira.


%63k euskaraz eta gaztelaniaz egiten dituzte euren kanpoko komunikazioak.

Elkar-lankidetzaz ezaugarri bereizgarria da: ia-ia erakunde guztiek ESSko beste erakunde batzuekin lan egiten dute.




## Merkatu Soziala

### Merkatu Sozialeko hornitzaileei egindako erosketak:



### Ekonomia Sozialeko beste erakunde batzuei egindako erosketak:









## Lankidetzaren eta ingurunearekiko konpromisoaren printzipioa

### Euren bezeroen eta oinarri sozialaren artean REAS zabaltzen duten erakundeak:



## Finantza etikoak


### Finantza etiko eta solidarioetako erakundeetako kideak edo bezeroak diren erakundeak:





## Lankidetzaren eta ingurunearekiko konpromisoaren printzipioa


Eragiketak egiteko orduan, erakundeek aukeratzen dituzten banka-motak:



- Fiare eta honako hauetako batzuk: Triodos Bank, Oikocredit, Kutxa kooperatiboak (Laboral, Ingenieros, Bantierra, Arquia...)
- Triodos Bank, Oikocredit, kutxa kooperatiboak (Laboral, Ingenieros, Bantierra, Arquia)
- Aurreko erantzunetan agertzen den baten bat eta beste banku-erakunde batzuk
- Beste banku-erakunde batzuk baino ez
- Eragiketak egitean, ez darabilte bankuko konturik



## Elkar-lankidetzza








## Lankidetzaren eta ingurunearekiko konpromisoaren printzipioa



### Ingurunearekiko konpromisoa

Euren agiri eta kanpoko komunikazio guztietan bi hizkuntza ofizialak darabiltzaten erakundeak:



Lan-ordutegian bertan sare eta mugimendu sozialetan denbora ematen duten erakundeak:

|                             | 2022 | 2023 | 2024 |
|-----------------------------|------|------|------|
| Hilean behin gutxienez      | %53  | %59  | %62  |
| Hiru hilean behin gutxienez | %18  | %17  | %18  |
| Urtean behin gutxienez      | %19  | %15  | %15  |
| Inoiz ere ez                | %11  | %9   | %6   |




## Lankidetzaren eta ingurunearekiko konpromisoaren printzipioa



### Prokomunerako ekarpena

5 erakundetatik 3k edonorentzat eskuragarri dagoen nolabaiteko ondasuna, zerbitzua edo materiala sortzen dute, edota ondasun sortaileak edo jakintza sortzen dituzte Creative Commons eta antzeko lizentzia libreen pean.



#### Erakunde hauek... :

2022

2023

2024

#### Software librea darabilte



#### Software libreko programa ofimatikoak darabiltzate



#### Software libreko programa ofimatikoak eta profesionalak




#### Software libreko sistema eragile gehienak dauzkate



-8-

# Lan duinaren printzipioa





-8-

## Lan duinaren printzipioa

Erakundeen %83k arreta emozionalerako eta zainketarako eremuak sortzen dituzte.

%74k gizonen erantzukidetasuna sustatzen dute familia eta lana bateragarri egiteko baimenetan.

%96k prestakuntza eskaintzen diete langileei, eta berdintasunaren arloko derrigorrezko eskaintzak gora egin du.



## Zainketak

Osasuna sustatzeko neurri aktiboak dituzten erakundeak



Langileen arreta emozionalerako eta zainketarako eremuak sortzen dituzten erakundeak



Familia eta lana bateragarri egiteko orduan legearen arabera zehaztutako baimenak hobetzeko neurriak kontuan hartzen dituzten erakundeak



Lan-baldintzak hobetzeko barruko araudia duten erakundeak



Gizonen artean, zehatz-mehatz, bateragarritasuna sustatzeko neurriak hartzen dituzten






-8-

## Lan duinaren printzipioa




## Aparteko orduak

### Aparteko orduak kontabilizatzen dituzten erakundeak:



### Aparteko orduen konpentsazioa:






-8-

## Lan duinaren printzipioa




### Prestakuntza eta norberaren garapena

#### Langileen prestakuntza kontuan hartzen duten erakundeek... :




#### Berdintasunari buruzko berriazko prestakuntzak:



### Lan-egonkortasuna

#### Lanaldi laburrean kontratatutakoak:



-9-

# Langileen eta boluntarioen iritzia





-9-

## Langileen eta boluntarioen iritzia



### Langileak

Bildutako iritzia: 1.023

Batez besteko balorazioa:

2018: 8  
2020: 8,4  
2022: 8,6  
2024: 8,7

Hauexen batez besteko iritzia:

Emakumeak: 8,7  
Gizonak: 8,4  
Ez-binarioak: 8,5

Langileen eta boluntarioen gogobetetasun-mailak handiak dira: ESS lan-baldintza onak eskaintzen dituen eremu seguru eta erantzukidea da.

#### ABERASTASUNAREN BIDEZKO BANAKETA

- Nire enpresak/erakundeak bere mozkinak darabiltza gizartea eraldatzeko/hobetzeko **9**
- Nire enpresak/erakundeak pertsonen ongizateari ematen dio lehentasuna eta ez emaitza ekonomikoei **9**

#### BERDINTASUNA

- Nire enpresan/erakundean, partaidetza sustatzen da erabaki garrantzitsuetan **8**
- Nire enpresan/erakundean, pertsona guztien partaidetza sustatzen da **9**
- Irisgarria da enpresa/erakundea zuzentzen dutenei dagokienez **9**
- Nire kexei, ekarpenei edo iradokizunei eraginkortasunez erantzuten zaie **8**
- Nire enpresak/erakundeak bere jardunari buruzko informazio garrantzitsu eta erabilgarria eskaintzen du **8**
- Nire enpresak/erakundeak aukera berberak ematen dizkie gizonei zein emakumeei, lanpostuak betetzeko orduan **9**
- Nire enpresak/erakundeak aukera berberak ematen dizkie gizonei zein emakumeei, erantzukizuneko lanpostuak betetzeko orduan **9**
- Nire enpresan/erakundean, ordezkartzako zereginak banatzen dira emakumeen eta gizonen artean **9**
- Nire enpresan/erakundean, zereginen arabera soldatetan dauden desberdintasunak zentzuzkoak dira **9**
- Nire enpresan/erakundean, emakumeek eta gizonek soldata berbera kobratzen dute lan berbera edo antzekoa egitearren **10**
- Nire enpresak/erakundeak hizkuntza ez-sexista darabil bere komunikazioetan **9**
- Nire enpresan/erakundean, pertsona guztiei tratatu berbera ematen zaie (haien gaitasunak, sexua, arraza, etnia, erlijioa, sexu-orientazioa... edonolakoak direla ere) **9**
- Nire enpresa/erakundea indarkeria matxistarik zein arrazistarik gabeko eta LGBTQI giza taldearen aurkako indarkeriarik gabeko eremu segurua da **9**
- Nire enpresak/erakundeak arraza/etnia guztietakoei ematen dizkie aukerak **9**





## Langileen eta boluntarioen iritzia

### JASANGARRITASUN EKOLOGIKOA

- Nire enpresan/erakundean, garraio jasangarria sustatzen da (busa, trena, auto partekatua, bizikleta...) **8**
- Nire enpresan/erakundean, energia aurrezteko moduko jarduketak garatzen dira (erregulatutako tenperatura, led bonbillak, gauez itzaltzen diren inprimagailuak...) **8**
- Nire enpresan/erakundean, birziklapena sustatzeko neurri egokiak daude **8**
- Nire enpresak/erakundeak produktu ekologikoak, tokian tokikoak, bidezko merkataritzakoak, etikoak... kontsumitzen ditu **8**

### LANKIDETZA ETA INGURUNEAREKIKO KONPROMISOA

- Nire enpresak/erakundeak gurea bezalako beste erakunde batzuekin lan egiten du egunez egunekoan **9**
- Nire enpresak/erakundeak gehiago hitz egiten du lankidetzari buruz lehiari buruz baino **9**
- Nire enpresak/erakundeak software librearekin du konpromisoa **7**
- Nire enpresak/erakundeak finantza etikoei buruzko informazioa eskaintzen digu **7**
- Nire enpresak/erakundeak Ekonomia Solidarioari buruzko informazioa eskaintzen digu **8**
- Nire enpresak/erakundeak bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) darabiltza bere komunikazioetan **8**

### LAN DUINA

- Nire enpresan/erakundean, laneko osasun eta segurtasunaren arloko baldintza egokiak daude **9**
- Nire enpresak/erakundeak soldata egokiak ditu **8**
- Nire enpresako/erakundeko lanaldia egokia da (lan-orduak, ordutegia, oporrak...) **9**
- Lanaldia (osoa edo laburra) nire premietara egokitzen da **9**
- Nire enpresak/erakundeak ordutegiak malgutzeko aukera ematen dit **9**
- Nire enpresak/erakundeak nire bizitza eta lana bateragarri egiteko erraztasunak ematen dizkit **9**
- Nire enpresan/erakundean, lan-baimenak hartu daitezke: batetik, familia tradizionalaren ereduarekin lotutakoak (adibidez, 1., 2. eta 3. mailako senideak) eta, bestetik, nor zaintzea erabakitzeke orduan ezarritako beste era bateko lotuneak (adibidez, bikotekidea, lagunak, pisukidea, maskota...) **8**
- Nire enpresan/erakundean, lan-giro ona dago **9**
- Nire enpresa/erakundea lan-jazarpenik gabeko lantokia da (ez da inor gutxiesten eta iraintzen, ez da informaziorik ezkututzen, jende guztiari bere gaitasunen arabera zereginak esleitzen zaizkio...) **9**
- Nire enpresa/erakundea sexu-jazarpenik gabeko lantokia da (ez da itxura fisikoari buruzko iruzkinik egiten, ez dago inolako sexu-keinurik, ez dago txistu-hotsik, lausengurik eta ustezko laudoriorik) **9**
- Nire enpresan/erakundean, zainketako zereginak banatzen dira emakumeen eta gizonen artean (adibidez, eremuak garbitzea, produktuak ordezkatzeta, harrera ematea, gatazkak konpontzea) **9**
- Pozik nago enpresa/erakunde honen parte izateagatik **9**





-9-

## Langileen eta boluntarioen iritzia



### Boluntarioak

Bildutako iritzia: 85

Batez besteko balorazioa:

2018: 8,5  
2020: 8,9  
2022: 9  
2024: 9

Hauexen batez besteko iritzia:

Emakumeak: 9  
Gizonak: 8,7  
Ez-binarioak: 9,6

#### ABERASTASUNAREN BIDEZKO BANAKETA

- Nire enpresak/erakundeak bere mozkinak darabiltza gizartea eraldatzeko/hobetzeko **9**
- Nire enpresak/erakundeak pertsonen ongizateari ematen dio lehentasuna eta ez emaitza ekonomikoei **9**

#### BERDINTASUNA

- Nire enpresan/erakundean, partaidetza sustatzen da erabaki garrantzitsuetan **9**
- Nire enpresan/erakundean, pertsona guztien partaidetza sustatzen da **9**
- Irisgarria da enpresa/erakundea zuzentzen dutenei dagokienez **9**
- Nire kexei, ekarpenei edo iradokizunei eraginkortasunez erantzuten zaie **9**
- Nire enpresak/erakundeak bere jardunari buruzko informazio garrantzitsu eta erabilgarria eskaintzen du **9**
- Nire enpresak/erakundeak aukera berberak ematen dizkie gizonei zein emakumeei, erantzukizuneko lanpostuak betetzeko orduan **9**
- Nire enpresan/erakundean, ordezkartzako zereginak banatzen dira emakumeen eta gizonen artean **9**
- Nire enpresak/erakundeak hizkuntza ez-sexista darabil bere komunikazioetan **9**
- Nire enpresan/erakundean, pertsona guztiei tratatu berbera ematen zaie (haien gaitasunak, sexua, arraza, etnia, erlijioa, sexu-orientazioa... edonolakoak direla ere) **9**
- Nire enpresa/erakundea indarkeria matxistarik zein arrazistarik gabeko eta LGTBQI giza taldearen aurkako indarkeriarik gabeko eremu segurua da **9**
- Nire enpresak/erakundeak arraza/etnia guztietakoei ematen dizkie aukerak **9**





## Langileen eta boluntarioen iritzia

### JASANGARRITASUN EKOLOGIKOA


- Nire enpresan/erakundean, garraio jasangarria sustatzen da (busa, trena, auto partekatua, bizikleta...) **8**
- Nire enpresan/erakundean, energia aurrezteko moduko jarduketak garatzen dira (erregulatutako tenperatura, led bonbillak, gauez itzaltzen diren inprimagailuak...) **8**
- Nire enpresan/erakundean, birziklapena sustatzeko neurri egokiak daude **9**
- Nire enpresak/erakundeak produktu ekologikoak, tokian tokikoak, bidezko merkataritzakoak, etikoak... kontsumitzen ditu **9**

### LANKIDETZA ETA INGURUNEAREKIKO KONPROMISOA

- Nire enpresak/erakundeak gurea bezalako beste erakunde batzuekin lan egiten du egunez egunekoan **9**
- Nire enpresak/erakundeak gehiago hitz egiten du lankidetzari buruz lehiari buruz baino **9**
- Nire enpresak/erakundeak software librearekin du konpromisoa **8**
- Nire enpresak/erakundeak finantza etikoei buruzko informazioa eskaintzen digu **8**
- Nire enpresak/erakundeak Ekonomia Solidarioari buruzko informazioa eskaintzen digu **9**
- Nire enpresak/erakundeak bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) darabiltza bere komunikazioetan **9**

### LAN DUINA

- Nire enpresa/erakundea lan-jazarpenik gabeko lantokia da (ez da inor gutxiesten eta iraintzen, ez da informaziorik ezkututzen, jende guztiari bere gaitasunen arabera zereginak esleitzen zaizkio...) **9**
- Nire enpresa/erakundea sexu-jazarpenik gabeko lantokia da (ez da itxura fisikoari buruzko iruzkinik egiten, ez dago inolako sexu-keinurik, ez dago txistu-hotsik, lausengurik eta ustezko laudoriorik) **9**
- Nire enpresan/erakundean, zainketako zereginak banatzen dira emakumeen eta gizonen artean (adibidez, eremuak garbitzea, produktuak ordezkatzeta, harrera ematea, gatazkak konpontzea) **9**
- Pozik nago enpresa/erakunde honen parte izateagatik **10**



## -10- Ondorioak eta erronkak



2025eko Auditoria Sozialean adierazten denez, Euskadiko Ekonomia Sozial eta Solidarioa heldua da, eta hazten ari da. Datuen arabera, sarea zabalagoa eta dibertsoagoa da, eta ia-ia 37.000 lagunek oinarri soziala dauka. Hori dela eta, REAS Euskadik are zilegitasun handiagoa dauka eraldaketa sozioekonomikoko funtsezko eragile moduan. Edonola ere, azterketan bertan, hobekuntza-arloak eta hurrengo urterako erronka estrategikoak ere aipatzen dira.

**1. Sarea lurralde-mailan orekatzea.** Hazkuntza etengabea bada ere, erakundeen %79 Bizkaian kokatuta daude oraindik. Araban eta Gipuzkoan, ordea, erakunde guztien %21 baino ez daude kokatuta. Desoreka horren ondorioz, lurralde-hedapenerako berariazko estrategiak bultzatzea da erronka, tokian tokiko eragileekiko lotuneak indartzeko eta ordezkaritza txikiagoko lekuetan ekimen berrien sorrera bultzatzeko.

**2. Dibertsitatean eta inklusioan sakontzea.** Genero-berdintasuna oso-oso sendotuta dago, baina dibertsitateko beste ardatz batzuen aurrerakuntza geldoagoa da. Langileen %1 baino ez dira desgaituak, nahiz eta erakundeen %83k irisgarritasunerako neurriak ezartzen dituzten. Hurrengo urteetan, funtsezkoa izango da eredu inklusiboagorantz aurrera egitea eta dibertsitate funtzionalaren, dibertsitate kulturalaren eta belaunaldi-dibertsitatearen ikuspegia bete-betean kontuan hartzea.

**3. Ingurumenaren gaineko eragina neurtzea eta murriztea.** Ia-ia erakunde guztiek kontsumo arduratsurako eta aurrezki energetikorako neurriak hartu dituzte, baina %4k baino ez dituzte CO2 isuriak neurtzen. Datu horrek agerian uzten du hutsune handia dagoela. Larrialdi klimatikoaren ondorioz, euskal ESSk jauzi kualitatiboa eman behar du bere ingurumen-aztarnaren kuantifikazioan eta murrizketarako zein konpentsaziorako plan eraginkorren diseinuan.






**4. Autonomia ekonomikoa sendotzea.** Fakturazio pribatuaren gehikuntza eta diru-sarreraren dibertsifikazioa seinale ona dira, eta erakundeen erresilientzia indartzen dute. Nolanahi ere, dirulaguntzen pisua (%34) handia da oraindik. Fondo publikoen inguruko larregizko menpetasuna sortu gabe xede sozialari eusteko moduko orekarantz aurrera egitea izango da erronka.

**5. Koherentzia eraldatzaileari eustea.** Hazkuntza ekonomiko eta zenbakizkoak ez du ESSren nortasuna desagerrarazi behar. Hedapenaren eta ESSren printzipioen inguruko leialtasunaren arteko orekari eustea da erronka nagusia. Elkar-lankidetzak (erakundeen %96) gidaria izan behar den indarra da, etorkizuneko garapenak proiektu kolektiboaren inguruko koherentzia galdu ez dezan.

## -10- Ondorioak eta erronkak



**Azken ondorioa.** 2025eko Auditoria Sozialaren arabera, euskal ESS sendoa eta feminista da, egonkortasun ekonomikoa du eta konpromiso soziala dauka. 2026rantzko bidean, partaidetza indartu behar da, dibertsitatea hedatu behar da, ingurumenaren jasangarritasunean egin behar da aurrera eta sarea orekatu behar da lurralde-mailan. Hori eginez gero, REAS Euskadik gizarte-eraldaketako erreferente moduan hazten jarraitu ahal izango du, eta egiaztatu egin ahal izango du badagoela beste era bateko ekonomia ezartzerik, baina, horrez gain, abian dagoela gaur egun eta gero eta indar handiagoz hedatzen ari dela.





**INFORMAZIO GEHIAGO:**

[www.reaseuskadi.eus](http://www.reaseuskadi.eus)

[auditoriasoziala@reaseuskadi.eus](mailto:auditoriasoziala@reaseuskadi.eus)

944 160 566

@REASEuskadi